

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**



Jende asko eta askok hortzak garbitu ondoren beraien hortz eskuilak komunaren konketaren alboan, apal batean uzten ditu. Komunean eta bainugelan, hainbat bakterio eta birusek eragin dezakete eskuila horretan. Hauek, nahiz eta erosterakoan estalitxoa eduki, hainbat gaixotasun sortu ditzakete eta oso larriak izan ahal dira.

Gainera, normalean beste hortz eskuila batzuen ondoan egoten direnez, batetik bestera bakterio eta birus horiek igarotzea oso erreza da eta pertsona bat baino gehiagoren osasuna arriskuan jarritz.

Hortzetako eskuila eguneroko erabilera pertsonaleko produktuetako bat da, ezinbestekoa baita higiene pertsonalerako eta ahoko arazoak saihesteko. Horregatik oso garrantzitsua da hortzetako eskuila egoera onean mantentzea.

Gainera, garrantzitsua da eskuilaren zurdak guztiz lehortzea, hezetasunak germenak eta bakterioak garatzea sustatzen baitu. Horregatik, odontologiako adituek estalkirik ez jartzea edo ontzi itxietan ez gordetzea gomendatzen dute.

Eskuila erabili eta ondo garbitu ondoren, ontzi garbi batean utzi behar da, ahal dela bakarrik (ontzia beste eskuilekin partekatu gabe) eta zutik jarrita, zurdak gainean egon daitezten. Gomendio hauek ematen dira, zeren eta, eskuilak txapelarekin edo ontzi itxietan gordetzen badira, "mikroorganismoen ugalketari" mesede egiten duen ingurune hezea sortuko da.

Arazo hau konpontzeko, eskuila gordetzeko pote bat sortzea ideia ona iruditu zaigu. Gaur egun merkatuan badaude hainbat produktu eskuila babesteko eta era egokiago baten antolatzeko, baina hauek ez dute eskuila guztia babesten eta gainera birus eta bakterioak bertan gelditzen dira. Guk pentsatutako poteak, aldiz, eskuila guztia babestu ahal izango du. Potea hurbiltasun-senstore batekin itxi eta zabalduko da, ahalik eta garbiena izateko eta bakterio eta birus kantitatea erabat murrizteko. Hau da gaur egungo beste produktuetatik bereizten gaituena, potea hurbiltasun-sensore batekin zabaltzea.



Eskua hurbiltzerakoan domo itxurako plastikozko mekanismo bat martxan jarri eta irekitzen da, eskua urruntzerakoan tapa itxiko da eta ondorioz airean dauden gaitzetatik eskuila babestuko du. Domo hori ezin da hermetikoki itxi, bertan hezetasuna egongo delako eta bertan ere bakteriak eratuko direlako, ondorioz ontziak azpitik zulo batzuk izango ditu aire korrontek igarotzeko sortutako hezetasuna murrizteko

Lehiakideengandik bereizten gaituena, erabateko eskuragarritasuna eta berritasuna da. Alde batetik, gure proiektua eskuragarria da, produktu honen produkzio faktoreak ez direnez oso garestiak, produktua bera ez da oso garestia izango, ondorioz gure produktua eskuragarria izango da. Beste alde batetik, berritasuna nabaria da zeren eta, ez dago horrelako sistemarik funtzio hau betetzen duenik merkatu osoan, hori dela eta produktu hau norberaren garbitasun pertsonala hobetzeko aurrepauso garrantzitsu bat da.